

OÑATIKO UDALA ALKATE DEKRETUA

Alkatetzaren erabakia, INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE plaza bat bitarteko funtzionario bidez betetzeko deialdia onartzen duena.

I.Udal plantila organikoan hutsik dagoen INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE plaza ahalik eta azkarren behin behineko izendapen bidez hornitu beharra dago. Horretarako, lehiaketa oposaketa prozesu bat egingo da. Beraz, deialdi hori egitea eta hautaketa prozesu horren oinarri arautzaileak onartzea proposatzen da.

II. Apirilaren 2ko, 7/1985 toki jardunbideko oinarriak arautzen dituen legearen 21.1g) atalak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliaz, erabakitzen dut:

ERABAKIA

Lehenengoa. Udal plantila organikoan hutsik dagoen INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE plaza behin behineko izendapen bidez betetzeko deialdia egitea.

Bigarrena. Deialdiaren oinarriak onartzea.
(I. eranskina)

Hirugarrena. Deialdi hau eta oinarriak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

Laugarrena: Hautaketa prozesuko Epaimahai kalifikatzaileetako kideak izendatzeko dagozkion izapideak abian jartzea.

Oñati, 2019ko ekainaren 21ean.

ALKATEA

IZARO ELORZA ARREGI